



EUSKAL HERRIARI ADIERAZPENA:

¡¡ FRANKISMOAREN INPUNITATEARI TOLERANTZIARIK EZ !!

Espainiako egungo demokraziaren historian lehen aldiz, bere Konstituzioak 43 urte pasa ondoren, gogoeta haurakur dezakegu Auto judizial batean:

“Erregimen frankistak antolaturiko errepresio-egitura osoak zuzendaritza politiko berriaren zuzendaritza pean funtzionatzen jarraitu zuen, trantsizio-prozesuaren kargura. (...) Haren arauei, egiturari, agenteei eta praktika errepresiboek eutsi zitzairen, eta ordena publikoko indarrei beren jardunaren zigorgabetasuna ziurtatu zitzairen, eskura zituzten bitarteko guztiak erabiliz”.

Baina hau ez da Espainiako ezein epaitegiren Auto judizial bat. Nazioarteko jurisdikzioak eman behar izan du, Servini epailearen eskutik, Argentinan.

Auto hau Sistema frankistaren goi-kargudun baten auzipetzeari buruz emandakoa da, bere buruzagi eta diktadore Francisco Franco bizirik zegoenean eta baita hil ondorengo erantzukizunegatik: hain zuzen Rodolfo Martín Villari buruzkoa da.

Epailearen Autoak honako hauek hartzen ditu kontuan:

“Martin Villa botere-egitura hierarkizatu horretan nagusi izan zen. Egitura horren bidez hedatu ziren aginduak delitu hoiak zuzenean exekutatu zituztenentzat. (.../...). Villak arlo horretako zuzentarau orokorrak eta partikularrak eman zituen”.

Oso pozik gaudela adieraztea nahi dugu Rodolfo Martín Villaren aurkako auzipetze-Auto honen edukiarekin, Argentinako Errepublikako 1. Epaitegi Kriminal eta Korrekzional Federalak 4591/2010 auzian eman duena, Espainiako Estatuan diktadura frankistan eta Trantsizioan gizateriaren aurka egindako krimenak ikertzen dituen.

Argentinako kereila duela 10 urte baino gehiago hasi zen, eta hainbat kereila eta salaketa jarri ditu, gaur egun 1.000 inguru. Justizia Unibertsalaren printzipioa aplikatuz izapidetzen ari den prozesu judizial horren esparruan, hainbat delitu ikertzen ari dira, guztiak gizateriaren aurkako krimenen testuinguruan, hala nola bortxazko desagerpenak, torturak, hilketak, haurtxoen lapurretak, esklabu lanak, etab.. 2013an eta 2014an, Argentinan Epaitegiak 22 pertsona baino gehiago inputatu zituen horrelako delituengatik. Pertsona horien artean Rodolfo Martín Villa zegoen jadanik.

Rodolfo Martín Villa gizateriaren aurkako krimenengatik auzipetzea aurrekaririk gabeko ekimen judiziala da, apartekoa, krimen frankista batzuk ikertzearen eta epaitzearen arloan, bai eta auzi kriminal horretan aurrera egiten jarraitzeko ematen dion bultzada prozesal erabakigarria ere. Frankismoaren biktima guztientzako erreparazioaren eta behar duen justizia penalaren adibide argia da.

Autoak Martin Villa auzipetzen du ordena publikoko indarrek Pedro María Martínez Ocio, Romualdo Barroso Chaparro, eta Francisco Aznar Clemente hiltzeagatik 1976ko martxoaren 3an Gasteizen izandako sarraskian; eta 1978ko uztailaren 8an ordena publikoko indarrek Germán Rodríguez Saíz hiltzeagatik Iruñeko San Fermin jaietan. Hilketak guzti hauek gizateriaren aurkako krimenen testuinguruan larriagotuak izan zirelarik.

Gainera, ikerketan sakontzen jarraitzeko agintzen du, baita froga gehiago eskatzea Rodolfo Martín Villa auzipetzeko, edo artxibatzeko, beste krimen batzuegatik: 1976ko martxoaren 3an Gasteizko mobilizazioetan egindako beste bi hilketek dagokienez (José Castillo eta Bienvenido Pereda); 1977ko



maiatzaren 12an, Erreterian, Guardia Zibilek egindakoari dagokionez (Rafael Gómez Jauregi); 1977ko maiatzaren 14an, Iruñean Polizia Armatuakegindako beste hilketa bateri dagokienez (Luis Cano); 1977ko maiatzaren 29an, berriz, Bilboko poliziak (Fco.Javier Núñez); 1976ko irailaren 8an, Hondarribian egindako manifestazio batean (Jesús María Zabala); 1976ko uztailaren 9an, Santurtzin (Norma Menchaca); eta 1977ko urtarrilaren 23an, Madrilen (Arturo Ruiz).

Argentinako epaileak erreguzko komisioak bidaltzea erabaki du Espainiar Estatuko hainbat lurralde-epaitegitara, aipatutako erailketa horiekiko bere garaian egin ziren jarduketa judizialen sumarioak ere gehituak izan daitezten.

Testuinguru horretan, “Frankismoaren krimenen aurkako Euskal Plataforma” osatzen dugun elkarteok euskal gizarte osoari eta bere erakundeei zuzentzen gataizkie, behingoz, eraso frankista guztiek orain arte izan duteninpunitateari eusteko edozein ahalegin ezabatzeko eska dezaten.

Hitz batez, Argentinako Epaitegiak emandako Autoa gureganatzeko deia egiten dugu, Espainiako Estatua zuzeneaninterpelatuz, hainbat ikuspegietatik:

1. Gogoraraziz lagundu egin behar duela, ez oztopatu, orain arte gertatu den bezala, auzi kriminala izapidetzea,izapidetze horretan etengabeko oztopoak ezabatuz.
2. Gogoraraziz krimen frankistak ikertzeko eta epaitzeko betebeharra duela. Betebehar horrek zera dakar:

- Botere Judizialak, epaileek, magistratuek eta Konstituzio Auzitegiak berak, beren gain hartutako nazioarteko betebeharrekin bat datozen ebazpenak har ditzaten, zigor-arloko jurisdikzioan krimen frankistak ikertzeko etaepaitzeko aukera eman eta ahalbidetzeko.

- Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2020ko abuztuan igorritako barne-oharra benetan aplikatzea, eta, ondorioz, Argentinako Epaitegiak bidalitako erreguzko komisioak betetzearen aldeko txostena egitea egoitza judizialean, eta krimen frankistak salatzen dituzten Estatu osoko epaitegietan jartzen diren kereila kriminalak izapidetzeko onartzearen aldeko txostena.

- Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrek gaur egun izapidetzen ari diren Memoria Demokratikoaren Legeak onartzea, oztopoak behin betiko kentzeko eta krimen frankisten jurisdikzio penalekoikerketa judizialak bultzatzeko agindu argiekin.

- Espainiako Gobernuak Argentinako Epaitegitik bidaltzen diren erreguzko komisio guzti-guztiak izapidetzea, eta dagozkion txostenak egitea Memoria Demokratikoaren Legea izapidetzen den bitartean, lehen adierazitako zentzuan.

“Frankismoaren krimenen aurkako Euskal Plataforma” osatzen dugun elkarteek Argentinako kereila izapidetzea etaEspainiako Auzitegietan kereila kriminalak aurkeztea bultzatzen jarraituko dugu; Espainiako Estatuan nagusi den zigorgabetasun-eredua salatzen jarraituko dugu, eta, hitz batean, lanean jarraituko dugu euskal gizarte osoak aldarrika dezan, indarkeriaz horren larriki bortxatuak izan ziren Giza Eskubideen aitortza, benetakoa izan dadin.

¡¡ FRANKISMOAREN INPUNITATEARI TOLERANTZIARIK EZ !!
¡¡ MARTIN VILLA EPAITU !!

Euskal Herria, 2021eko abenduak 10.



MANIFIESTO A EUSKAL HERRIA: ¡¡ TOLERACIA CERO A LA IMPUNIDAD FRANQUISTA!!

Por primera vez en la historia de la actual democracia española, tras 43 años de Constitución, leemos esta consideración en un Auto judicial:

“Toda la estructura represiva montada por el régimen franquista siguió funcionando bajo la dirección de la nueva dirigencia política a cargo del proceso de transición. (...) Se mantuvieron las normas, estructura, agentes y las prácticas represivas propias de aquél, y se les aseguró a las fuerzas de orden público la impunidad de su actuación por todos los medios a su alcance.”

Pero éste no es un Auto judicial de ningún Juzgado español. Lo ha tenido que dictar la jurisdicción internacional de la mano de la Jueza Servini, en Argentina.

Es un Auto emitido en relación al procesamiento de un alto cargo del Régimen franquista, como lo fue Rodolfo Martín Villa, tanto en vida, como tras la muerte de su jefe y dictador Francisco Franco.

El Auto de la Jueza sigue considerando:

“Martín Villa ocupó una posición preponderante en esa estructura jerarquizada de poder a través de la cual se propagaron las órdenes hacia quienes resultaron ejecutores directos de los delitos. (.../...) Villa impartió las directivas generales y particulares en esta materia”.

Manifestamos nuestra enorme satisfacción con el contenido de este Auto de procesamiento contra Rodolfo Martín Villa, dictado por el Juzgado Criminal y Correccional Federal 1 de la República Argentina en la causa 4591/2010, que investiga los crímenes contra la humanidad cometidos en el Estado español durante la dictadura franquista y la Transición.

La querrela argentina se inició hace más de 10 años y ha ido sumando numerosas querellas y denuncias, actualmente en torno a 1.000. En el marco de este proceso judicial, que se tramita en aplicación del principio de Justicia Universal, se investigan múltiples delitos, todos ellos en un contexto de crímenes contra la humanidad, como desapariciones forzadas, torturas, asesinatos, robo de bebés, trabajo esclavo, etc... En 2013 y 2014 se procedió a imputar a más de 22 personas por la comisión de dichos delitos por parte del Juzgado argentino. Entre estas personas se encuentra Rodolfo Martín Villa.

El procesamiento de Rodolfo Martín Villa por crímenes contra la humanidad se trata de un hecho judicial sin precedentes, extraordinario, en relación con la investigación y enjuiciamiento de algunos de los crímenes franquistas, así como un impulso procesal determinante para continuar avanzando en dicha causa criminal. Nos encontramos ante un claro ejemplo de reparación y justicia penal para todas las víctimas del franquismo.

El Auto procesa a Martín Villa por el homicidio agravado, en un contexto de crímenes contra la humanidad, de Pedro María Martínez Ocio, Romualdo Barroso Chaparro, Francisco Aznar Clemente (asesinados por las fuerzas del orden público durante la masacre del 3 de marzo de 1976 en Gasteiz/Vitoria) y Germán Rodríguez Saíz (asesinado por las fuerzas de orden público durante las fiestas de San Fermín de Iruñea/Pamplona, el 8 de julio de 1978).

Además, decreta seguir profundizando en la investigación y solicitar más pruebas para procesar, o sobreseer, a Rodolfo Martín Villa, respecto de otros dos homicidios cometidos en las movilizaciones de Vitoria el 3 de marzo de 1976 (José Castillo y Bienvenido Pereda); del cometido el 12 de mayo de 1977, en



Rentería, por parte de efectivos de la Guardia Civil (Rafael Gómez Jauregi); el 14 de mayo de 1977, en Iruñea-Pamplona, por parte de efectivos de la Policía Armada (José Luis Cano); el 29 de mayo de 1977, en Bilbao (Fco.Javier Núñez); el 8 de septiembre de 1976, durante una manifestación en Hondarribia (Jesús María Zabala); el 9 de julio de 1976 en Santurtzi (Norma Menchaca); y el día 23 de enero de 1977 en Madrid (Arturo Ruiz).

La jueza argentina ha acordado librar comisiones rogatorias a diferentes Juzgados territoriales del Estado español, para solicitar que se incorporen los sumarios con el conjunto de actuaciones judiciales que se llevaron a cabo en sudía, respecto a los citados asesinatos.

En este contexto, las Asociaciones integrantes de la *Plataforma Vasca contra los crímenes del franquismo* nos dirigimos a toda la sociedad vasca y a sus instituciones, para que reclamen la eliminación, de una vez por todas, de cualquier intento de mantener la impunidad que hasta la fecha han disfrutado todas las agresiones franquistas.

Llamamos, en definitiva, a hacer nuestro el Auto dictado por el Juzgado argentino, interpelando directamente al Estado español en su conjunto desde diferentes perspectivas:

1. Recordándole la necesidad de que colabore y no obstaculice, como ha sucedido hasta la fecha, la tramitación de la causa criminal, eliminando la obstaculización constante en su tramitación.
2. Recordándole su obligación de investigar y enjuiciar los crímenes franquistas, lo cual supone:
 - Que el Poder Judicial, Jueces, Magistrados y el propio Tribunal Constitucional dicten resoluciones acordes con las obligaciones internacionales asumidas, que permitan y posibiliten en el orden jurisdiccional penal la investigación y enjuiciamiento de los crímenes franquistas.
 - Que se aplique de forma efectiva la nota interna emitida por la Fiscalía General del Estado en agosto de 2020 y, en consecuencia, informe favorablemente en sede judicial respecto al cumplimiento de las comisiones rogatorias que envíe el Juzgado argentino, e informe favorablemente respecto a la admisión a trámite de las querellas criminales que se interponen en los propios Juzgados del conjunto del Estado en las que se denuncian crímenes franquistas.
 - Que los Parlamentos español y vasco aprueben las Leyes de Memoria Democrática que actualmente tienen en tramitación, con dictados claros que remuevan definitivamente los obstáculos e impulsen las investigaciones judiciales en el orden jurisdiccional penal de los crímenes franquistas.
 - Que el Gobierno español tramite todas y cada una de las comisiones rogatorias que sean libradas desde el Juzgado argentino y emita los correspondientes informes durante la tramitación de la Ley de Memoria Democrática en el sentido que ha sido indicado anteriormente.

Las Asociaciones integrantes de la *Plataforma Vasca contra los crímenes del franquismo* seguiremos impulsando la tramitación de la querrela argentina y la presentación de querellas criminales en los Tribunales españoles; seguiremos denunciando el modelo de impunidad imperante en el Estado español y, en definitiva, seguiremos trabajando para que el conjunto de la sociedad vasca demande el reconocimiento efectivo de los derechos humanos que fueron gravemente violentados.

¡¡TOLERANCIA CERO A LA IMPUNIDAD FRANQUISTA!!
¡¡JUICIO A MARTIN VILLA!!